



BARREN
TOKIKOM

Emakumea 'larrugorritan'

Jone Arriola



Ignacio Salegi Urain

2021eko otsailaren 2an hil zen, 78 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.
Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko.



Patxi Zabala Gandiaga

2021eko otsailaren 1ean hil zen, 66 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Patxi Zabala Gandiaga

2021eko otsailaren 1ean hil zen, 66 urte zituela.


*Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.
Zure indarrak emango digu benetako bizia,
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.*

Katueder Elkarteko lagunen partez.



Miguel Artola Bergaretxe

2021ko urtarrilaren 24an hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Maria Ines Arriola Zubiaurre

2021eko urtarrilaren 30ean hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Maria Teresa Etxaniz Elorza

2021eko urtarrilaren 30ean hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU



Kontuak, ez dira gaur goizeko kontuak

multzo desberdinak dituen, eta aztertu duten zientzialarien iritziz, zenbaketarako erabilitakoa. Marka horiek gainera taldekatuta datoz eta zenbaketa hutsetik haragoko ulermen matematiko sakonago baten seinale ere izan daitezke. Bruselako Natur Zientzien Museoa dago erakusgai. Ez galdetu niri zergatik Bruselan.

Askoz beranduagokoak dira Mesopotamia edo Sumeriako taula matematikoak eta beranduagokoak oraindik, Babilonia edo Egipton aurkitutakoak. Merkataritza edo nekazaritzarako erabilitakoak, batez ere.




Eta beranduagokoa, Tales. Miletoko Tales. Joniar kostan, gaurko Turkian, kokatutako Tales herri (polis) greziarrean jaio

eta bizi izan zena, K.a. 600 urte inguruan. Aintzinatean Zazpi Jakintsu Greziarretako bat kontsideratua. Eta izena jar diezaioketun lehen matematikaria. Eta ez matematikaria bakarrik, jakina.

Egiptora egin zuen bidaiaren batean, hango apaizek bere jakinduriaren zenbaterainokoa probatu nahi izan ei zuten eta baita erronka jarri ere. Ia piramide baten altuera zehaztasunez emateko gai izango litzatekeen. Talesek bere makila lurrean zut sartu eta bere gerizak altuerarekin bat egin arte itxaron zuen (apenas Egipton, garai hartan ere, laino askorik zegoen). "Orain esan zuen—piramidearen gerizaren luzeera neurtu eta bere altuera eza gutuko dugu". Gaur triangeluen antzekotasuna esaten zaio.

Aspaldi hasi zen gizakia kontuak egiten; mundua kuantifikatzen; mundua neurtzen. 20.000 urte inguru kalkulatu zaizkio (goi paleolitoa), esaterako, Ishango Hezurrari, ezagutzen den artefaktu matematiko zaharrenari. 1950. urtean aurkitu zuten gaur Kongoko Errepublikan Demokratiko deitutakoan, Afrika erdialdean, Ishango izeneko parajea. 10 cm luzeko hezur bat da (babuino baten peronea, diotenez), marka

“Talesek bere makila lurrean zut sartu eta bere gerizak altuerarekin bat egin arte itxaron zuen”

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Berkhala/ren Topagunea</p>	<p>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR 943 744 112</p> <p>Publizitatea: 943 743 704</p> <p>barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik.</p> <p>KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zaloa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzurika ADMINISTRARIA Amaia Arrizabalaga KOLABORATZAILEAK Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ane Astiazaran, Irtati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR UDONIA AYUNTAMIENTO</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>   <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>
--	--	--



BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► IKUSI ETA ZABALDU

Bihar, otsailak 6, urtebete Zaldibarko zaborteja jausi eta Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran zabor azpian harrapatu zituela (Alberto Sololuzeren gorpua abuztuan agertu zen, baina Joaquin Beltranena oraindik ez dute aurkitu). Latza. Urteurrena gogoratzeko, Berria TBko lantaldeak *Zaldibarko hondamendiaren arrakalatan barren* dokumental laburra (25 minutu) ekoitzi du. Nagore Arinek, Lara Madina-beitiak eta Jon Ordoñezek egin dute dokumentala.

Zaldibarko hondamendiaren lehen hamar egunak bildu ditu dokumentalak hiru protagonistaren ahotik: Nahia Sololuze, Alberto Sololuze hildako langilearen

alaba; Oskar Morales, Eitzaga auzoko bizilaguna; eta Iñaki Petxarroman, *Berri*ko kazetaria.

Gertaera gogor hau ez da urruneko kontua, hementxe daukagu, aldamenean. Ikusi dokumentala eta zabaldu zuen inguruan, merezi du. Bideoa *Berriak* Youtuben duen kanalean aurkituko duzue.

A.I.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEk edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaz:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigarrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuak egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.

III. URTEURRENA

Jose Miguel Azkoitia Artetxe

2018ko otsailaren 6an hil zen, 57 urte zituela. Haren oroimenez III. urteurrenako meza izango da, domekan, otsailaren 7an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.

*Gauetz zeruari
begiraten zain gaituzu:
zu han, gu hemen.*

Zure familia




Enrique Galán Josué

2021eko urtarrilaren 31n hil zen, 43 urte zituela.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*

Agur, Melli

Mendaroko lagunak



Dimisioa eman dute Debabarreneko ESIko zuzendaritzako bi kidek arrazoi pertsonalak argudiatuta

Debabarreneko ESI Erakunde Sanitario Integratuko medikuen zuzendariak eta erizainen zuzendariak dimisioa eman zuten joan zen astean, arrazoi pertsonalak argudiatuta. Jakina da Basurtuko ospitalean eta Santa Marina erietxean txertoak hartu dituztela hainbatek, hartzea ez zegokienean. Auzi honen harira azalpenak eman zituen Gotzone Sagardui Osasun sailburuak Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean. Sagarduik onartu zuen deskoordinazioa egon zela Santa Marina erietxean eta horrek eragin zuela txertaketa modu desegokian egin izana. Era berean, onartu zuen beste ESI batzuetan ere jarri zizkietela txertoak zuzendaritzako hainbat kideri, tartean Debabarrenakoan. Sagarduiren esanetan ESIko bertako prebentzio-zerbitzuek egiaztatu zuten, bi kide hauek zuzendaritzako kargudunak izan arren, Covid-19arekin lotutako gai-xoei ere laguntza ematen zirela eta, beraz, txertoa hartzea egokitu zitzaizela, hartu-eman zuzena dutelako pazienteekin.



Auto bat trenbidera erori zen Mendaron, joan zen barikuan



Mendaroko Ospitaletik behera zetorren auto bat trenbidera erori zen joan zen barikuan, eta hainbat metroko erorikoaren ondoren buruz behera gelditu zen autoa. Lekukoek jakinarazi zuten, industriagunera zihoan trailer kamioi bat industriagunerako sarreran zegoen geldi. Ospitalerantz zihoan auto bat kamioia gainditzen saiatu zen orduan, eta auto horrekin topo egin zuen aurrez aurre ospitaletik behera zetorren beste autoak. Izkin egiten saiatzerakoan autoaren kontrola galdu eta trenbidera amildu zen ospitaletik behera zetorren autoa. Zaurituak euren kabuz irten ziren autotik, eta hainbat lekukoren laguntzaz lortu zuten tren garaiz gelditzea. Zauri arinekin eraman zituzten ospitalera bi gazteak.

Covid-19a dela-eta, ostiralaz geroztik itxita daude Elgoibarko eta Mendaroko Eguneko Zentroak

Elgoibarko zein Mendaroko Eguneko zentroak itxita daude joan zen barikutik koronabirus kasu bana atzeman dituztelako. Elgoibarko Udalak emandako azalpenen arabera, zerbitzuko erabiltzaile bat etxean konfinatuta dago Elgoibarren Covid-19a dela-eta, eta, horregatik, zerbitzua itxeko agindu die Gipuzkoako Foru Aldundiak. Jakinarazi dutenez, otsailaren 12a bitartean egongo da itxita. Mendaroko Eguneko Zentroan, berriz, koronabirus kasu positibo bat egon da eta itxita izan behar dute bi astez. Okerrik ezean, otsailaren 15ean dute berriro zabaltekoa.



Elgoibarrek bat egingo du emakume zientzialarien nazioarteko egunarekin



Elgoibarko Udalak bat egingo du otsailaren 11ko Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna, eta horren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte otsailaren 8tik 21era bitartean. Hiru ekimen burutuko dituzte: Batetik, Elgoibarko hamabost komertzio erakusleihoak apainduko dituzte emakume ikerzaileen omenez, #Erakusleihoak011 ekimenaren barruan. Agurtzane ile apaindegia, Karkizano, Lagunak koltxoi denda, Nalai oinetakoak, Pitxintxu, Farmazabal, Itziar Sarasketa ortopedia, Sara jantzi-denda, Casa Astigarraga, Iriondo Kirolak, Ene Bada, Ecenarro mertzaria, Doña Mercedes, Garbiñe estetika eta Kima bioestetikak hartuko dute parte ekimen honetan.

Era berean, nagusientzako *Matriuska* antzezlanaren antolatuta dute. Hasiera batean otsailaren 13rako zuten iragarrita, baina Covid-19a dela-eta, atzeratu egin dute egoerak ahalbidetzen duen arte. Azkenik, 12-13 urteko gazteei zientzia pilulak eskainiko dizkiete ikastetxeetan Elgoibarko eta Bizilabeko emakume zientzialariek. Elgoibarko Udalarekin batera, Elhuyar, Ikastola, Herri Eskola eta Institutua, Egur Arte tailerra, merkataria, Bizilabeko gazteak eta Elgoibarko emakume zientzialariak dira egitasmo honen sustatzaileak.

Urazandiko igogailua hasi da itxura hartzen

Urazandin eraikitzen diharduten igogailu publikoko egitura metalikoak eta pasabidea jarri dituzte azken astean, eta hasi da amaieran izango duen itxura hartzen. Garabi handiak erabili behar izan dituzte egitura metalikoak zein pasabidea bere lekuan jartzeko eta tarte labur batzuetan autoentzako eta oinezkoentzako igarobidea itxi behar izan dute lan horiek egin ahal izateko. Gune horretan zeuden eskailera mekanikoak kendu eta igogailuak eraikitzen ari dira. Udalak guztira 423.066,05 euroko inbertsioa egin du auzotarren mugikortasuna errazteko eta Elgoibar irisgarriagoa egiteko. Bi igogailuen instalazioarekin batera, ingurua berrurbanizatzeko hainbat lan ere egingo dituzte, hala nola, hobekuntzak euri-uren saneamenduan eta argiteria sarean. Gainera, led teknologiko bi argi puntu berri ipiniko dituzte.

Sallobenteko sekretuak ibilbidea moztuta dago

Elgoibarko Udalak jakinarazi duenez, Sallobenteko sekretuak ibilbideko zati bat itxita dago oinezkoentzako, inguru horretan pinuak ateratzen egiten ari diren lanengatik. Basartesorroeta base-ritik Sallobente ermitarainoko bide zatia da erabili ezin dena zehaztu dute.

Estreinako 'Death kafe' saioa, Elgoibarren

Almaur elkarteak antolatuta, estreinako *Death kafe* saioa egingo dute Elgoibarren, otsailaren 18an. Heriotzari buruz hitz egiteko topagunea izango da, baina antolatzaileek aurreratu dute ez dela izango doluan laguntzeko saioa. Koronabirusaren kontrako neurri guztiak hartuko dituzte saiorako, eta plazak mugatuak izango dira. Izena emateko 627 117 819 telefonora deitu behar da.

Langabe kopuruak gora egin du urtarrilean Elgoibarren

Irailean hasitako beherako joera eten eta langabezia igo egin da Elgoibarren urtarrilean, Debabarrenean eta Hego Euskal Herrian bezala. Urtarrilaren amaieran 529 langabe zeuden Elgoibarren, abenduan baino 19 gehiago. Aurtengo urtarrilean erregistratutako langabezia-tasa (%9,57) iazko urtarilekoa baino 0,35 puntu handiagoa da. Mendaron 81 langabe zeuden (%8,19), abenduan baino bat gutxiago. Hona hemen Debabarreneko abenduko datuak, herriz herri: Eibar: 1.696 (%13,31), Deba: 209 (%7,84), Soraluze: 271 (%14,46). Debabarrenean, guztira, 3.014 (%11,39) langabe zeuden.



Covid-19aren intzidentzia-tasa milatik gorakoa da Elgoibarren, eta hori jaisteko neurriak zorrotz ditu Elgoibarko Udalak

J oan zen astean sartu zen Elgoibar eremu gorrian, eta asteburuz geroztik milatik gorako intzidentzia tasa dauka. Hori dela-eta, ostalaritza ixteaz eta taldeko kirola eteteaz gain, Elgoibarko Udalak segurtasun eta prebentzio neurriak indartu ditu, "elgoibartarren osasuna zaintzeko". Batetik, harremanak ahalik eta gehien murriztu eta jende pilaketak ekiditeko deia egin du Ane Beitia alkateak, eta horrekin batera, herriko hainbat eraikin eta zerbitzu mugatzea erabaki dute: Kultur Etxeko eta Aita Agirre kulturguneko gune ireki eta partekatutak itxi dituzte, eta baita Gaztelekua eta Ludoteka ere; bakarrik garbitzen ez diren komun publikoak ere itxita daude; Liburutegiak, Udal Euskaltegiak eta KZ Guneak zerbitzua eskaintzen jarraituko dute baina segurtasun protokoloak indartuta.

Era berean, bertan behera laga dituzte otsailaren 3tik aurrera eta erabaki berri bat hartu bitartean, Elgoibarko Udalak programatuta zituen kultur eta bestelako ekitaldiak, Herriko Antzokikoak eta kirol instalazioetakoak izan ezik.



Hainbat lapurreta egin dituzte aste honetan Elgoibarren

Astelehenetik martitzenerako gauean Elgoibarko hainbat establezimendutan lapurretan egin zuten. Batetik, Urazandiko Sanatana Darma yoga zentroan sartu ziren, goizaldeko 01:00ak aldera. Lekuko en arabera, leiho bat hautsita sartu ziren barrura. Errosario kaleko Baltasar elkartean eta Jausoro plazan EA alderdiak duen alkartetxean ere sartu ziren lapurrak.

Kandelaria eta San Blas Egunak ospatu dituzte eliztarrek aste honetan



Otsailaren 2an Kandelaria eguna izan zen, eta hurrengo egunean, San Blas. Ohitura zaharrari jarraiki, kandelak bedeinkatu zituzten martitzenean, eta san blas opilak eguaztenean. Santa Klarako eta Madalako baselizetan ere bedeinkatzen dituzte opilak normalean, baina pandemiaren ondorioz San Bartolome parrokiaren bakarrik bedeinkatu dituzte aurten Elgoibarren, eta Azpilgoetako elizan Mendaron. Indarrean dauden neurri murriztailuen eraginez, kultu-jardueretako edukiera muga %35ekoa da, eta zenbait lagun sartu ezinda gelditu ziren. Koldo Lizarralderen *Festa Herrikoiak Elgoibarren* liburuan jasota dagoenez, XX. mendeko lehenengo urteetan gatza, San Blas opilak eta lokarriak bedeinkatzen ziren eztarriko minik ez izateko, eta ikusten denez, herritar askok eusten diote oraindik ohitura horri.

Airea garbitzen duten hiru makina ipini dituzte Mendaroko ikastolan

Mendaroko Udalak airea garbitzeko hiru makina ipini ditu Mendaroko Ikastolan, Covid-19aren aurkako prebentzio neurri gisa, kutsatzeko arriskua txikitu eta ikasle eta irakasleen segurtasuna bermatzeko. Irakasle eta ikasle denek erabiltzen dituzten eremuetan jarri dituzte gailuak: jangelan eta soinketa aretoan. Iñaki Arregi alkateak adierazi du Covid-19ari aurre egiteko neurri gehigarriak hartzen ari direla eta herritar guztien segurtasuna bermatzea dutela lehentasuna. Aire-garbigailuak pisu eta tamaina txikia dute eta, altueran kokatuta daudenez, aerosol bidez zabaltzen diren birusak errazago detektatzen dituzte. Gailuaren beheko aldetik jasotzen dute airea, eta behin garbituta, goiko aldetik kanporatzen dute. Aire-zirkulazio honek aireztapen naturala simulatzen du. Udalak 3.215,58 euro bideratu ditu gailuok alokatzeko.



▶ **JONE ARRIOLA**
ERREALIZADOREA

Jone Arriola (Elgoibar, 1998) Ikus-entzunezko Komunikazioan graduatua da, eta ikasketa amaierako proiektuari esker, Tabakalerak antolatzen duen 2de lehiaketan sari bat eskuratu du. 'Females' izena jarri zion unibertsitaterako lanari, eta proiektuari hainbat aldaketa egin ostean, 'Larrugorritan' izenez aurkeztu zuen lana lehiaketara. 99 lanen artean zortzi aukeratu zituzten azken faserako, tartean Jone Arriolarena, eta hiru saridunetako bat izan da. Sari horri esker, gazteen bizipenak ardatz dituen telesail baterako prototipoa prestatzen ari da.

- AINHOA ANDONEGI -

“Emakumearen figurari jartzen dizkioten filtroak kendu eta benetako emakumea erakutsi nahi izan dut”

♦ **'Larrugorritan' telesailerako lehen kapitula izango dena grabatzeko lanetan ari zara, 2de lehiaketan irabazi duzun sari bati esker. Nola iritsi zara honaino?**

Unibertsitateko hirugarren mailan geundenean telesail baterako gidoia prestatzeko eskatu ziguten lan baterako. Irakasleari asko gustatu zitzaion nire ideia, eta proposatu zidan gradu amaierako lana ere ideia horretatik abiatuta garatzea. Irakasle berberak eman zidan Tabakalerako 2de lehiaketaren berri. Iruditzen zitzaion nire lana hara aurkezteko modukoa zela, eta pentsatu nuen saiatzeagatik ez nuela galtzekorik. Aurkeztea erabaki nuen, eta fasez fase gaur egun gauden punturaino iritsi naiz. Lehenengo fa-

sean zortzi aukeratu zituzten eta horietako bat izan zen gurea. Hortik hiru saritu zituzten eta bat gurea izan zen. Orain proiektuaren prototipoa grabatzeko lanetan ari gara; gure kasuan, telesailko lehenengo kapitula.

♦ **99 lanen artean aukeratutako bat zurea izan zela jakitean, zer sentitu zenuen?**

Jende gehienak esaten zidan “baina espero zenuen, ezta?”. Baina ez nuen espero. Gauza bat da norberak buruan duena, baina oso bestelakoa izaten da errealitatea. Zuk pentsatu deza kezku sekulako ideia dela, baina ez dakizu gainerakoei zer irudituko zaien, beraz, ez nuen espero. Lehenengo fasea gainditzea

sekulakoa izan zen niretzat. Aukeratuekin egin genuen lehenengo bileran txiki-txiki sentitu nintzen. Gainerako partaide gehienak profesionalak ziren, eta ni unibertsitate irten berria. Beste maila bateko jendea zegoen han, eta une hartan konturatu nintzen nire ideiak bazeukala aurrera egiteko mamia. Lagun talde bat batu ginen eta aurreproduzio lan handia egin genuen bigarren fase-rako, eta esan zigutenean hiru aukeratuetakoa bat izan zela gurea, ezin genuen sinistu. Ikasle eta hasiberri moduan, sekulakoa izan da guretzat.

◆ **Kontatuko diguzu zein den saria eman dizun ideia hori?**

Asko gustatzen zait emakumea benetan den modukoa erakustea, eta horixe egin nahi nuen; normalean erakusten diguten emakumearen figurari filtro guztiak kendu, eta horren atzean dagoen benetako emakumea erakutsi nahi nuen. Iruditzen zait gaur egun ez dela irudikatzen emakumea benetan nolakoa den, eta ikusi nahi nuen emakumeon jarrera lotsagabeak ikuslearengan nolako eragina zeukan ere. Emakumearen jarrera horretatik tiraka egin nahi izan dugu gazteak identifikatuta sentituko diren telesail bat. Emakumez osatutako lagun talde bat da protagonista, mutil bat ere egongo da taldean, eta helburua da gai bakoitzaren aurrean gure benetako jarrera erakustea, idealismorik gabekoa. Azken batean, gizarte matxista honetan zerekin topo egiten dugun eta nola aurre egiten diogun erakutsiko dugu, gazteen ikuspegitik. Tabuak hautsi eta gizarte kritika sustatu nahi dugu. Euskaraz izango da, euskarazko ikus-entzunezkoak sustatu nahi ditugu, gazteek euskarazko produktuak kontsumitzeko beharra dutelako.

◆ **Unibertsitate garaian kokatu dituzu protagonistak. Zergatik?**

Unibertsitate garaia aukeratu dut iruditzen zaidalako garai hori oso une interesgarria dela gazteontzat. Etxetik joan nahi dugu, baina etxera itzultzen gara; aske izan nahi dugu, baina ez gara guztiz; ikasketa batzuk hasten ditugu, askotan jakin gabe benetan gustatzen zaigun egiten ari garena; eta sozializatzeko oso garai ona da. Joku handia ematen duen garaia da, eta ni neu ere garai hori bizitzen ari nintzenez, pentsatu nuen horrek lagunduko zidala transmititu nahi nuen ideia hobeto azaltzen.

◆ **Momentuz publiko dagoen bideo batean neska gazte talde bat ageri da, sexuaz hizketan. Nolako harrera izan du?**

Sexua gai bat gehiago da gure proiektuan, gai garrantzitsua eta gazteengan interes handia duena. Gure artean askotan hitz egiten dugu sexuaz, baina hori ez da erakusten, ezkutuan gertzen da, eta askotan lotsatu ere egiten gara. Tabu horiekin apurtu nahi dugu, eta gai hau normalizatu. Sexua eta sexualitatea normalizatu nahi ditugu emakumeen eta gazteen ikuspuntutik. Gizonezkoek edozein unetan eta edozein tokitan egin ditzakete sexuarekin lotura duten komentarioak, baina emakumeek ez? Guk ere hitz egiten dugu sexuaz eta hori ere erakutsi nahi izan dugu, eta bide batez, euskaldunok sexuarekiko daukagun irudi itxi hori ere apurtu nahi izan dugu. Bideo horretan neskek sexuaz hitz egiten ari dira, mutilei buruz, zakilei buruz eta ez gaude ohituta horrelakoak entzutea, eta ni neu ere lotsatu nintzen apur bat hasieran, baina harrera oso ona izan zuen bideoak, emakumeen

“Euskarazko ikus-entzunezkoak sustatu nahi ditugu, gazteek euskarazko produktuak kontsumitzeko beharra dutelako”

artean batez ere. Gizonezkoek ez zuten agian hain ondo hartu, ez daudelako ohituta. Gure helburua bazen baita ere emakumeei umore ukitu bat ematea gai honetan, eta gizonezkoak apur bat deseroso sentiaraztea. Bizitzako une askotan gu deseroso sentitzen gara, eta beraiei ere tokatzen zaiela uste dut.

◆ **Nola aukeratu dituzu protagonistak?**

Lehenengo bideo bat egin nuen unibertsitateko lanerako, eta horko aktore asko elgoibartarrak ziren. Oihartzun handia izan du bideo horrek Elgoibarren, baina bideo hori proiektu honetatik kanpo geratzen da; gradu amaierako lanerako izan zen soilik. Orduan *Females* zeukan izena nire lanak, eta orain beste fase batean gaude. *Larrugorritan* proiektuarekin ari naiz orain, eta casting bat egin dugu aktoreak aukeratzeko. Batzuk bagenituen buruan eta haiekin zuzenean kontaktatu dugu, baina gainerakoak



Casting-a egin zuteneko argazkia.



Saridunek Tabakalera egin zuten bilerako irudia.

casting bidez aukeratu ditugu. Aktore naturalak nahi nituen, erre-
alak. Niretzat ez zen garrantzitsua esperientzia izatea, naturalta-
suna nahi nuen, eta jende asko animatu nuen casting-era. Aktore
batzuk besteak baino ezagunagoak dira, baina batzuk ez ditugu
inoiz ikusi, eta hori gustatzen zait.

♦ **Emakumeak aukeratuta, mutil bila ari zara. Zein ezaugarri eduki behar ditu 'Larrugorritan' telesailako mutilak?**

Mutil saltseroa behar dugu, lotsarik ez duena. Gaztea eta eus-
kalduna izatea ezinbestekoa da, baina bestela, naturala izatea-
rekin nahikoa da. Gu ere ez gara profesionalak, eta nahiago dut
aktoreek ilusioagatik parte hartzea, motibatuta daudelako, iraba-
ziko duten diruagatik baino.

♦ **Proiektuari buruz plurarean hitz egiten duzu. Zein lantalde dago proiektu honen atzean eta zein da zure egitekoa?**

Hasierako ideia nirea izan zen eta nik garatu nuen, baina ho-
rrelako proiektu bat pertsona bakarrak ezin du aurrera eraman.
Beraz, lantaldea handituz joan da, eta oraindik handitzen jarrai-
tuko du. Hasieran ni eta nirekin ikasitako bi neska geunden. Ge-
rora batu zaizkigu gidoilariak, casting arduradunak, produkzioko
langileak... Ni neu sortzailea izateaz gain, gidoilari eta zuden-
daria ere izango naiz. Gidoia nik eta beste bi emakumek idatzi
dugu. Nire helburua da lantalde guztia emakumez osatutakoa izate-
tea, edo gutxienez goi karguetan emakumeak egotea, erakusteko
gai garela ardura postuetan ere jarduteko. Normalean kargu han-
diak gizonezkoek betetzen dituzte, eta guk erakutsi nahi dugu ho-
rretarako ere gai garela eta kameraren atzean lan egiten ere
badakigula.

♦ **Une honetan prototipoa edo lehen kapitulua ekoizten ari za-
rete. Noraino iritsi daiteke hau guztia?**

Lehiaketan bertan zehazten zen saridunek prototipo bat gra-
batu beharko zutela, eta prototipo esaten zioten ikus-entzunezko
edozein produkziari. Gure proiektua telesail bat denez, lehenengo
kapitulua grabatzea pentsatu genuen, eta hortan ari gara. Gidoia
sortu nuenean nire buruan irudikatu nituen lekuak ere, eta lokali-
zazio bila aritu naiz, argazkilari zuzendari baten laguntzaz, baina
eszenatoki gehienak lokalizatuta ditut. Mendaron ibili nintzen ko-
kaleku bila, eta badaukat gustuko txokoren bat, baina seguruenik
gehiena Donostia aldean grabatuko dugu. Eta hau bukatzen du-
gunean ez dakit noraino iritsiko garen. Niri gustatuko litzaidake
gainerako atalak ere grabatzea, baina horretarako laguntza be-
harko dut. Momentuz eskuratu dudun sari honekin lehenengo ka-
pitulua grabatzeko daukagu; gerokoa zer izango den ez dakit.

♦ **Guzti honetan, zerk harritu zaitu?**

Konturatu naiz unibertsitatean ez digutela erakusten benetan
errealitatea nolakoa den. Ez digute erakusten errealitateko egoe-
rak kudeatzen, eta profesionalak sartu behar izan ditut lantaldean.
Adibidez, dirua nola kudeatu ez nekien, kontratuak, ogasuna, de-
klarazioa... hori guztia handi geratzen zait. Gidoia bera idatzeko
ere gidoilari profesionalen laguntza behar izan dut, eta azken pro-
dukura iristeko eman beharreko pausoak zein ordenatan eman
behar nituen ere ez nekien. Orain askoz lasaiago nago. Gauzak,

*"Gogo handia
daukat emaitza
ikusteko eta
jendeari
erakusteko"*



azkenean, eginez ikasten dira eta nik oso denbora laburrean
gauza asko ikasi ditut.

♦ **Noiz ikusi ahal izango dugu 'Larrugorritan' telesailako es-
treinako kapitulua?**

Maiatzera arteko epea daukagu lana amaitzeko, baina ez
dakit noiz eta nola egingo den publiko. Tabakalera bertan
emango dutela badakit, baina ez dut uste publiko irekiarentzat
izango denik. Niri gustatuko litzaidake kapitulu guztiak eginda-
koan erakustea guztia, baina gainerako kapituluak grabatu ahal
izateko lehenengo erakutsi behar badut, erakutsiko dut. Gogo
handia daukat nik neuk emaitza ikusteko eta jendeari erakusteko
ere. Printzipioz Internetarako produktua dela uste dut, iruditzen zai-
dalako euskarazko telebista publikoan ez duela kabidarik horre-
lako proiektu batek. Gazteen kontsumo modua ezagututa,
gainera, webean ikusteko sortuko dugu.

♦ **Zuri zein estilotako telesailak gustatzen zaizkizu?**

Nik denetik ikusten dut, eta iruditzen zait gainera denetik ikusi
behar dela jakiteko zer gustatzen zaizun. Gazteekin lotutako tele-
sail asko ikusten ditut, eta nire ingurukoek ere bai. *Larrugorritan*
kasuan nahi nuen ez izatea gazteen inguruko telesail bat gehiago,
eta nik uste dut lortu dugula bat gehiago ez izatea. Inspirazio be-
zala *Merli* telesail katalana erabili dugu.

♦ **Ikasketak amaitu eta telesail bat zuzentzen ari zara. Pribile-
jiatua?**

Ez dakit pribilejiatua den hitza. Aukera bat suertatu zait eta
aprobetxatu egin dut. Lanaren emaitza da dena, azken batean,
baina bai, esan daiteke pribilejiatua naizela.




Nahia
Etxaniz
Arano,
8 urte,
Elgoibar

"Lakuaren dimentsioa"



Uxue
Gutierrez
Celaya-
Zugadi
10 urte,
Elgoibar

"Negu txuria"



Eta orain, zer?

Gaitzak jo zituen intsinis pinuak. Lehendik ere hala-hola zeuden, baina duela pare bat urtetik hona, pinudiak jo beste erremediorik ez dute ikusi lur-jabe askok. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko mendietan espezierik zabalduena da intsinisa, basogintza-egurgintza sektorearentzako espezierik errentagarriena, eta urte askoan iturri-ekonomiko oparoa izan da baserritarrentzat. Gauzak aldatzen ari dira, baina. Pinuaren ordezkotzako bila hasita daude asko eta gero eta leku gehiagotan eukaliptoaren alde egin dute zenbait lur-jabek. Ez du entzute onik, baina, eukaliptoak eta kezka zabaldu da bazterretan. Are gehiago kanpoko enpresak somatu dituztenean inguruan, eukaliptoak landatzeko lur-sail bila. Kezka hori agertu dute Mendaron zenbait baserritarrek, eta haiekin bildu ostean, eukaliptoaren argi-ilunak lantzeko beharra ikusi du Mendaroko Udalak. Hala, 'Eukaliptoa. Nora goaz?' izenburuko hitzaldia antolatu zuen joan zen barikurako. Arturo Elosegi Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia Fakultateko irakasle katedraduna eta Aitor Onaindia Basoa Fundazioko kidea gonbidatu zituzten, eta han jasotako enbata laburpena duzue hau.

- AINARA ARGOITIA -



▶ ARTURO ELOSEGI LANDAREEN BIOLOGIA ETA EKOLOGIA SAILEKO IRAKASLEA EHUN

30 urte baino gehiago daramatzate Arturo Elosegik (Tolosa, 1962) eta haren taldekideek gizakien jardunak erretan eta ibaietan duen eragina

aztertzen, eta 2018an, eukaliptoak ingurumenean zuen eraginari buruzko txosten teknikoa aurkeztu zuen, beste hiru lagunekin batera: Aitor Larrañaga EHuko irakaslea, eta Juan Arizaga eta Carlos Cabrido Aranzadi Zientzia Elkarteko ornitologia eta espetologia saileko ikerketa arduradunak. Legebiltzarraren enkarguz egin zuten, Jaurlaritzako Natur Ondare eta Aldaketa Klimatikorako Zuzendaritzak eskatuta. *Web of Science* munduko datu basean eukaliptoaren inguruan jasotako guztia berrikusi zuten horretarako.

Txosten hori da joan zen barikuan Mendaron aletu zuena. Eta emaitza argia da: "Neurtu diren ia gauza guztietan ikusi da eukalipto pinua baino okerragoa dela eta bertako basoa baino nabarmen okerragoa". Hona hemen ikerketa horretan jasotako puntu nagusiak:

- **Azalera:** Azkeneko 30 urtean laukoiztu egin da eukaliptoak estaltzen duen lur azalera. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, azalaren %3 inguru hartzen du gaur, baina Bizkaiko kostaldean, azalaren erdia baino gehiago ere bai leku batzuetan; Maruri inguruan, esaterako. "Pinua ordezkatzeko ari da".
- **Erabilera:** Euskal Herrian papera egiteko erabiltzen da nagusiki edo ia bakarrik. 13-15 urtetik behin moztu da (pinua 35-40 urtetik behin). Eta moztu ondoren erraz ematen ditu kimuak motzondoetatik. Ez da, beraz, landare berriak landatu beharrik izaten. Hiru aldiz ematen du eukaliptoak, baina behin hirugarren aldiz moztu ostean, 40-45 bat urteren buruan, zainak atera egin behar dira. Hazkunde azkarreko espezieak, pinua eta eukaliptoak esaterako, matarrasa sistemaz moztu dira eta era horretan lurzoru gehiago higatzen da, batez ere leku malkarretan. "Ez dago kalkulatu zenbat lur galtzen den, baina gauza jakina da lurra ehundaka urtean pilatzen den ondarea dela eta zaila dela lehen goratzea".
- **Ustiapen teknika:** Lehen eskuz egiten zuten lana makina astunek egiten dute gaur. Eukaliptoak ia bakarrik makina prozesatzaileekin ustiatzen da. Horretarako makinak iritsi behar dira bazter guztietara, eta mendi-bide asko zabaldu behar dira.



“Neurtu den ia gauza guztietan ikusi da eukaliptoak bertako basoa baino nabarmen txarragoa dela”

● **Lur sail handiak:** Garai batean hektarea txikia(goa)k landatzen zituzten baserritarrek, baina gero eta joera handiagoa dago lur-sailak batzeko. Kanpotik etorritako papergintza eta egurgintza enpresak ere ari dira hemen lurrak erosten, eukaliptoak sartzeko. Mendarora iritsi dira.

● **Lurraren ezaugarriak:** Portugalen eta Galizian egindako ikerketa batzuek erakutsi dute eukaliptoak landatuta dauden lurrak hidrofugoak direla. Hostoetan daukan olioak ematen dio usain berezi hori eukaliptoari, eta hostoak erortzen direnean, koipe hori lur gainean pilatu ohi da. Horrek iragazgaitzagoa egiten du lurra. Hala, uholdeak nahiz lehorteak izateko arriskuak handitu egiten dira eukalipto sailak dauden lekuetan. Izan ere, euria egiten duenetan ura ez da lurra filtratzen eta gainezka egiten du ur emari hori zuzenean iristen da erreketara uholde arriskua areagotuz. Sikute garaian, berriz, iturriak lehorteak arriskua handiagoa da, ura ez delako iragazten lurra.

● **Eukalipto hostoa:** Toxikoa da, eta substantzia alelopatikoa dauka. Landareek lehiarako erabiltzen duten arma kimikoari esaten zaio alelopatia. Eukaliptoak hostoetan dituen molekula batzuek ezinezkoa egiten diete beste espezie batzuei eukalipto azpian edo inguruan bizitzea; erretzea eragozten die haziei.

“Horregatik proposatu izan dute eukalipto hostoa herbizida gisa erabiltzea ere”.

● **Mikrobio komunitateak:** Suteek baino eragin handiagoa dute eukaliptoek mikrobio komunitateen galeran.

● **Landaredia eta onddoak:** Hostoak dilindan ditu eukaliptoak, bertikalean, eta oso itzal gutxi egiten dute, bertako espeziekin alderatuta. Ikusi dute oso liken gutxi bizi direla eukaliptoetan, eta aldi berean, %40 belar eta lore espezie gutxiago hazten dela eukalipto basoetan.

● **Anfibioetan duen eragina:** Batetik, bertako basoetan baino %50 anfibio espezie gutxiago daude eukalipto basoetan, eta bestetik, espezie bakoitzeko ale kopuruak ere gutxiago dira (%90 gutxiago) eukalipto nahiz pinua landatutako lekuetan. Pentzatu zuten orbel-ixibatuetan egon zitekeela horren arrazoiak, hau da hostoek askatzen duten substantzietan. Eta laborategian egin zuten proba. Anfibio espezie ezberdinak hazi zituzten laborategian, haritz-uretan, pago-uretan, gaztainondo-uretan eta eukalipto-uretan, besteak beste, eta uhandre palmatua espeziearekin egindako proban ikusi zuten eukalipto-uretan hazitakoek malformazioak izaten zituztela. Horrez gain polikiago hazten ziren, eta gainera, immunitate-sistema ahulagoa zuten.

● **Hegaziak:** %60 hegazi espezie gutxiago zenbatu dituzte eukalipto basoetan bertako basoetan baino. Arrazoietakoa bat zera da: askoz zomorro gutxiago dituztela jateko. Gainera, basoak oso gazteak direnez, eta zuhaitz guztiak adin berekoak, oso egitura sinplea izan ohi dute, enbor zulorik gabea, eta aberastasiun biologiko txikikoak ondorioz. Hau da, ugaltzeko leku aproposik ez dute topatzen kabia enbor zuloetan egiten duten hegaztiak, adibidez kaskabeltzak eta okilak.

● **Errekak:** Erreken ur emarrietan aldaketak sarriago gertatzen dira eukalipto dagoen lekuetan. Eukaliptoaren hostoak gainera aldaketak eragin ditzake erreka ekosistemetan. Izan ere, errekan bizi diren animalia gehienak basotik datozkien orbelak janez bizi dira. Laborategian ur-zorriekin egin zuten proba baten berri eman zuen, ur-zorriak ere zuhaitz-hostoekin elikatzen direlako. Haritz, lizar, pago, eta eukalipto hostoak eman zizkieten jaten eta ikusi zuten pagoa ez zitzaizela batere gustatzen, baina eukalipto hostoa janez gero, hil egiten zirela. Erreketan ere egin dute behaketa, laborategitik bizitza errealerara saltoa egon ohi dela jakitun. Bost erreka pare aztertu dituzte eta ikusi dute eukaliptopean, batez beste, %23 zomorro gutxiago daudela eta %11 espezie gutxiago. "Galizian egindako beste ikerketa batek erakutsi du, gainera, eragin hori handiagoa dela zenbat eta eukalipto gehiago egon arroan. Eta 'zomorroak ez zaizkio inori axola' pentsatuko duzue, baina amuarrainak haiek jateki bizi dira".

Erreketan egindako probetan ezusteko handiena beste honek eragin zien: ikusi nahi izan zuten erreketako bizidunek nola erabiltzen duten iristen zaien orbela. Horretarako, arbola hosto ezberdinak sartu zituzten poltsatxoetan eta hilabeteren buruan ikusi zuten historik gustukuenak ere ez zituztela guztiz jan mamorroek. "Janariaren aprobeixamendua %70 eskasagoa zen. Horrek esan nahi du janari onena dagoen lekuetan ere bertako zomorroak ez direla gai haiek jateko eta horrek erakusten du erreka funtzionamendua hankaz gora dagoela".

● **Egur hila:** Eukalipto-basoetan eta inguruko erreketan oso egur-hil gutxi dago bertako basoetan dagoenarekin alderatuz gero. "Garai batean oso fama txarra zeukan egur-hilak basoetan, baserriar alferrarekin lotzen zelako basoan egur-hila egotea, baina gaur egun badakigu oso inportantea dela egur-hila, bizia ematen diolako basoari".

● **Eukaliptoak eta inguruko habitatak:** Matarrasa egiten denean inguruko erreka basaz betetzen dira eta izokinak, Martin arrantzaleak... desagertzera egiten dute. "Batzuek esango dute aldi baterako kontua dela, orain uher datozen urak lehengoritzen direlako denbora batera, baina arrastoa hor gelditzen da, eta habitat pobrea izaten dute amuarrainek-eta".

● **Ustiaketa / kontserbazioa:** Ingurumenaren ikuspuntutik, eukalipto hemen horren ugaria izan den intsinis pinua baino kaltegarriagoa dela nabarmendu zuen, eta zenbat eta eukalipto gehiago eta zenbat eta denbora gehiagoan izan, eragin hori handiagoa dela. Txosteneko puntu nagusien errepaso egin ostean, ustiaketa-kontserbazioa dikotomiaren inguruan jardun zen Elosegik.

"Dikotomia okerra da", esan zuen. "Garai batean gauza bera pentsatzen genuen airearen kalitateaz ari ginela edo erreketako kutsaduraz ari ginela. Pentsatzen genuen gure ongizatearen truke ordaindu beharreko prezioa zela. Gaur egun onartezinak zaizkigun kutsadura-maila genuen. Baina egin kontu nola biziko ginatkeen gaur ez bagenu ura eta airea arazten horrenbeste gastatu!. Egia da ustiatzen ez diren basoak direla balio naturalik handienekoak, baina beste muturrera joan gabe ere badaude aukerak. Autoa hartu eta ibilaldi bat egitea besterik ez dago". Basoari etekin ekonomiko ateratzeari zilegia irizten zion eta nabarmendu zuen eragile bakoitzak bere lehentasunak eta premiak izango dituela, baina horren harira ohartarazi zuen basoak egurra ez den bestelako irabaziak ere ematen dituela eta aintzat hartzea komeni dela. "Aiako harrietan, esaterako, bertako basoaren alde egin dute. Ura babestea lehenetsi dute. Ura eta aisialdi aukerak. Ultzama aldean, berriz, ondoek ematen dute dirua. Eta hemen bertan, duela urte asko ez dela garia ereiten zuten mendi puntetaraino. Orain zer da? Papera da Gipuzkoak gehien behar duena?".

● **Erantzukizunak:** "Arriskutsua iritzi zion Elosegik espezie bakarra bultzatzeari. Bi eremu daudela zioen, pribatua eta publikoa, eta bi eremuotan politika desberdinak jarraitu beharko lirakeela. Bere ustez, pribatuek epe laburreko etekina bilatzea zilegi da, baina lur publikoetan lehentasunak beste batzuk izan beharko lirakeela uste du. "Momentu ona da, adibidez, Udalak lau pezetatan lurra erosteko eta lur horietan biztanle guztientzat onena izango dena egiteko. Ataka zailean dauden baserriar asko ari dira lurra saltzen, hori edo baserria ixtea beste irtenbiderik ez dutelako. Eskaini diezaiegun irtenbideak, kontsumitu dezagun gehiago bertakoa, erabili dezatela Udalek irudimena nola lagundu asmatzeko. Eta baserriarrek pentsatu dezatela pixkat: lur guztiak eukaliptoz estaltzea da gehien komeni zaidana? Lur hori saltzeak mesede egingo die nire ondorengoei? Badakit etsigarria dela egindako lan guztia alferrik galtzen ikustea, baina pentsatu hori eginda arrotz baten esku gelditzen dela etxe buelta guztia". Elosegiren ustez, lur-jabe bakoitzak erabaki beharko du zer egin, baina baso-politika guztion artean erabaki beharrekoa da, "guztiona den inguruneari eragingo diolako".

● **Etekin ekonomiko:** Pinuak eman izan duen diruaren inguruan honela mintzatu zen: "Inork diruaz baldin badaki, bankuek dakite. Behin, milatik gora hektarea pinudi zituen Kutzako arduradun bati galdetu nion beren basoek zenbat diru ematen zuten. Ez zutela ematen esan zidan. Pinua saltzen ateratakoa apenas iristen zitzairen hurrengo zuhaitzaldia zaintzeko gastuak estaltzeko. Pinuak dirua eman du, baserriarrek eurek egin dutelako urteetan lan guztia, baina belaunaldi hori joan da". Garbi du pinuak baserriarrentzat garrantzitsuak direla, baina galdera luzatu du: "Herri-lurretan basogintza-eredu bera behar ote dugu? Basoen beste onurak ez ote dira garrantzitsuagoak?".

Mendi ingeniartzatza ikasi du eta Basoa fundazioko kidea da gaur egun Aitor Onaindia (Durango, 1976). Basoen garrantzia eta gizarteari ekarritako onurak ezagutaraztea da Basoaren egiteko nagusia.



▶ AITOR ONAINDIA BASOA FUNDAZIOKO ORDEZKARIA

“Babesteak kudeaketa egoki bat egitea izan behar luke, eta ez basoa ukitu gabe uztea”

◆ Zer ari da gertatzen?

Euskal herritarrok basoarekin betidanik izandako lotura pentsaera berri batek ordezkatu du: basoa utzi egin behar da, ezin da ukitu. Gizartea urbanizatu egin da, kaletartu. Baserrietan bizi diren askok ere ez dute baserriaren kudeaketaren berri eta gizakiaren esku-hartzea ez dela ona zabaldu da, baina ez dezagun ahaztu gure gizartearen eta kulturaren ondorio dela gaur egungo paisaia ere. Paisaia hau guk sortutakoa da, guk aldatutakoa. Gure beharren arabera geuk aldatutakoa. XIX. mende amaieran, lur ia guztia nekazaritzarako geneukan Euskal Herrian, eta XX. mendera ia arbolarik barik heldu ginen. Hau ez zen dena hariztia, jende batek hala uste badu ere. Soroa zen hau. Industrializazioa heltzean, lur asko funtziorik barik geratu ziren eta pinua sartzen hasi ziren soroetan. Denbora laburrean eta lan asko eskatu barik, etekina lortzeko aukera ematen zuenaren alde egin zuten. Egur asko sortu eta ondo erabili duen gizartea izan da gurea. Horri buelta ematen hasi gara orain. Gizartea ez da jabetzen basoek duten garrantziaz eta ezjakintasunak aurreiritziak sortzen ditu. Askotan ez gara konturatzen, baina basoak egurra ematen digu, ura iragazten du, CO2a arintzen du...

◆ Eta zer proposatzen duzu?

Bidea oreka topatzea da. Gizakiaren esku-hartzeak natura perturbatzen duen usteak, baina, babestu kontzeptua sortu du. Basoak ukitu gabe uzteari edo ahal den gutxien ukitzeari esaten diote babestu,

baina basoa ustiatzen ez badugu, ezin ditugu gure beharrian batzuk ase. Pentsaera horrek ekarri du babesaren izenean okerreko gauzak egitea. Babestu barik kudeatu da hemen hitza. Horrek ez du esan nahi edozelan kudeatu behar denik, jakina, baina babesteak kudeaketa egoki bat egitea izan behar luke, eta ez basoa ukitu barik uztea. Gizartearen nahien eta paisaiaren aitzakian kaltea egin daiteke elako. Baso-jabeari basoa aldatuaraziz gero, oso litekeena da etekin ekonomikoa txikitzea, lan gehiago sortzea... eta aldatuta horrek beharbada ekarriko du gizartearentzat onura bat, baina arduraren parte baten gain lagata.

◆ **Basoak gorri daude. Lur-jabeak kezkatuta daude botatako pinudietan zer sartu ez dakitelako, eta beste asko, tartean zenbait lur-jabe ere bai, kezkatuta daude, ikusten dutelako eukaliptoak ordezkatu dezakeela pinua.**

Hori da daukagun arazoaren sintoma bat. Denok egon beharko genuke arduratuta pinuak gaixotu direlako. Denok galdetu beharko genieke gure buruei ‘eta orain nondik aterako dugu gure beharrian zentzuzko egurra? Nondik energia? Nondik ura? Dagoen arduraren bakarra da baserriaren: “Nik egindako inbertsioa nola errekuperatuko dut?” Galdera horiek planteatuz gero, alternatibak ere ezberdin ikusiko ditugu. Hemen gertatzen zaiguna da egur asko sortzen dugula, baina gero gure gizarteak ez duela erabiltzen. Egurra sortzeko lekuri produktiboenetarikoa da Euskal Herria, baina gure beharrianak egur horrekin estaltzea falta zaigu.

◆ **“Ingurumen ikuspuntutik, neurtu diren parametro guztiek erakutsi dute euka-**

liptoak pinua baino txarragoa dela eta bertako basoa baino nabarmen eskasagoa”. Eta gure inguruan gero eta gehiago ikusten da.

Pinu asko izan dugu eta pinua egon den lekuetan eukalipto sartzen ari dira batzuek, baina Gipuzkoan oso eukalipto gutxi sartu da. Eukalipto ez da oso espezie maitatua hemen, eta jende askok gurago du pinuaren antzekoagoa den beste zerbaite sartu: Cryptomeria japonica eta Sekoia, esaterako. Koniferak dira, eta intsinis pinuaren antzeko hazkundea eta merkaturatzea dute. Eukalipto asko dagoela esaten da, baina Gipuzkoan 600 hektarea pasatxo eukalipto zeuden sartuta 2019an, eta hori oso portzentaje txikia da. Bizkaian askoz gehiago dago, baina hori ez da azkeneko bost urteetako kontua. XX. mende hasieratik egon da hor eukalipto, eta ez du sekula bertoko basorik ordezkatu. Ni kezkatzen nauena da jendea basoak bertan behera uzteko prest ikusteak. Hori da hemen benetako arriskua. 10.000 pertsonatik ehunek egiten badute hori, ez da arazoa, baina denak gauza bera egiten hasiz gero, akabo. Ez dutelako basoa ustiatu gabe uzten aldi batez lurra babesteko, baizik eta lurra erosi dienik ez dutelako topatzen. Egia da baso batzuk saldu direla, baina baso onak, azalera handikoak; Gipuzkoan halako gutxi daude.

◆ Zein paisaia litzateke egokiena?

Euskal Herria txikia da, baina jende asko bizi gara, eta komeni zaigu guk behar duguna guk geuk sortzea, eta ez kanpotik ekarri behar izatea. Horretarako, mosaiko itxurako paisaia beharko genuke. Ez dut txarto ikusten erreserbak zehaztea,

baina basoan eukaliptoak ere lekua izan behar du.

◆ **Jotako pinudietan zer sartu ez daki-
tenei zer esango zenieke?**

Denetarik egon behar dela. Etekin ekonomikoa atera nahi dutela esaten badiate, esango diet orain momentuan dirua ematen duen bakarria eukaliptoa dela. Gizarte jokaera aldatuko bagenu, beste ate bat zabalduko genuke, baina

gaur hori gara. Arturok [Elosegi] esan zuen berak ura ere ordaintzen duela, baina ez da egia. Uren azpiegiturak izatea ordaintzen dugu guk: Hodien, ur-biltegien... mantenua da ordaintzen duguna. Inork ez dio ordaintzen ur hori batu duenari, materiagatik beragatik. Eta zergatik ez ditugu diru-partidak sortzen horretarako? Halakoak sortuko bagenu eta lur-jabeek egurrari ez eze, beste

gauza batzuei ere etekina atera ahalko baliote, ez genuke inor derrigortu behar harko ezer egitera. Merkatu aukerak zabalduz gero, lur-jabeak erabaki ahalko du lur-txatal batean eukalipto sartzeari, beste batean haritza eta bestean beste edozer. Produzioari horrenbeste begiratu beharrean, hobe genuke bertakoa gehiago kontsumitzea eta bertakoari laguntzeko politikak sustatzea.



▶ ANGEL MARI IRIONDO

LANDA GAJETARAKO ZINEGOTZIA MENDAROKO UDALAN

◆ **Udalek zer eskumen dute kontu honetan?**

Eskumenik ez dute. Informatu bakarrik egin dezake Udalak.

◆ **Ezin du beraz eukalipto sartzeari debekatu?**

Ez. Foru Aldundiak ere ezin du egin hori. Egin duena da laguntzak kendu. Aldundiak ez du dirurik ematen eukalipto landarak erosteko, sartzeko eta garbiketalarik egiteko. Gaixotutako pinudietan eukalipto sartu nahi duenak ez du dirurik jasotzen. Haritza, pagoa, lizarra eta bertako beste espezieak sartu nahi dituenak, aldiz, dirulaguntzen %100 jasotzen du, eta Criptomeria, Alertzea sartu nahi dituenak laguntzen %50, sartzegatik eta garbitasunagatik ematen dutena. Intsinisa sartzeari ere ez dute diruz laguntzen, gaixo dagoelako.

◆ **Arturo Elosegi gogoeta egitea eskatu zuen. Udalei ere bai. Lurra erosteko proposatu zizueten. Zer duzue esateko?**

Mendaroko Udalak, gutxi gorabehera, 15-20 bat hektarea herri-lur badiuzka dagoeneko, Santa Kurutz aldera.

◆ **Gehiago erosterik ez duzue pentsatu?**

Momentuz ez. Bildutik eskatu dute, baina iruditzen zaigu daukagunak kudeatu behar ditugula lehenengo.

◆ **Aitor Onaindiak dio basoa bertan behera uztea dela azkena. Ados zaudete orduan?**

Horretan bai. Bertan behera lagatzen den basoa, ez dator. Kudeatu ezean, sasitza bihurtzen da azkenean.

◆ **Gaur egun, baina, hala daude Mendaroko herri-lurrak.**

Bai. Bildukoek orain hiru bat urte 8.000 metroko saila landatu zuten Etxabe inguruan, baina sartu zituzten landarak sasiak hartu zituen. Lur hori itxi eta garbitu egin dugu orain, eta otsailan haritza eta pagoa sartzeko asmoa daukagu, bertan dauden arteak lagata. Zuhaitz Eguna ere antolatu nahi dugu, azkeneko 50 bat arbola-landara umeek sartu ditzaten. Onddo esporekin mikrorrizatutako landarak dira sartuko ditugunak.

◆ **Kanpoko enpresak eukalipto landatzeko sail bila ei dabilta.**

Bai, etorri dira. Arnoaten 50 bat hektarea erosi ditu Bilbo aldeko enpresa batek. Arnoatekoak bertakoak zortzi hektareako lurra erosi behar izan du, enpresa horrek eukalipto sar ez diezaion etxe inguruan. Goikolakoa ere kezkatuta dabil, iturburu duelako etxetik gertu, eta beldur delako zer gertatuko den horrekin. Kezkatuta daude zenbait

baserritar eta guri daukagun informazio guztia mahai-gainean jartzea dago-kigu, gero eurek erabakiko duten arren zer egin euren lurretan. Hemen sartzeari diren eukalipto Nitensa da, eta papera egiteko erabiltzen da, egurretarako ez duelako behar beste kalitatearik. Eta kontuan hartu behar dugu hemen papergintza enpresa bakarria daukagula. Diruaz ari bagara, jakin behar dugu aste honetan metro kubiko eukaliptoaren prezioa zortzi eurora jaitsi dela eta zer irabazi emango duen ez dakigula. Guk daukagun bildurra zera da: prezio onik egiten ez badu, hemendik urte batzuetara baso sail handiak geldituko direla erabat utzita. Gaur egun, eukalipto sartzeari duen baserritarrek dirulaguntza guztiak galtzen ditu, eta diru asko da hori. Datu bat: 10 urteko pinua gaixotu zaionak 3.500 euro jaso ditu hektareako eta hor intsinisa eta eukalipto ez dena sartzegatik ere kobratu egiten du. Eta guri badagokigu horren gainean ohartaraztea ere. Konturatu behar dugu gure zaharrek zer utzi diguten. Eukalipto beti egon da, baina hemen ez zuten sartu, zerbaitegatik. Aldundian ere kezka badute txostena egiteko ere ez diotelako Basoak eskatu, zientzialariei baizik. Guk horra artekoa dakigu. Hori eta Mendaron 150 bat eukalipto hektarea daukagula gaur, beraz, Gipuzkoan, derrigor izan behar dira 600 hektarea baino gehiago.



1952

Jose Mari Zubirremerteriaren artxiboko argazkia da gaur hona ekarri duguna. 1952ko urriaren 16an Arteta baserriko atarian egindako argazkia duzue. Ez al da benetan argazki ederra? Ikus ditzagun nortzuk diren argazkikoak. **Zutik:** Mariano Garate, Domingo Garate, Leona Gabilondo eta Jose Mari Garate senar-emazteak, Angel Arrieta, Natibidad Garate, Carlos Esteibar, eta Kontxita Garate, besoetan Jose Mari Esteibar haurtxoa duela. **Behean:** Lorenza Larrañaga eta Mila Garate, Agustin Garate eta Benancio Esteibar, Dominica Gurrutxaga, Belen Esteibar, Mariano Arrieta eta Jose Agustin Juaristi. **Bi lerroen artean, tente:** Maritxu eta Pepita Arrieta.



I. URTEURRENA

Jose Luis Oñederra Elortegi

"Zabaleta"

2020ko otsailaren 8an hil zen, 81 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, otsailaren 7an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.



Astua atzeruzka baiño torpiagua (aldrebesagua) izan:
Pertsona oso aldrebes edo torpeen gainean esan ohi da.

Gaur jarriko dituzte salgai Puro Relajo taldearen kontzerturako sarrerak



Otsailaren 21ean iritsiko da Puro Relajo taldea Elgoibarrera. Bi emanaldi eskainiko ditu mariatxi taldeak Herriko Antzokian, 12:30ean bata eta 17:00etan, bestea. Ikuskizunerako sarrerak online bakarrik salduko dituzte, Kutxabank-en webgunearen bitartez, eta gaur jarriko dituzte salgai, 20:00etan.

Idazlan lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak, ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko

Ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko helburuarekin Elgoibarko Idazlan lehiaketaren laugarren ekitaldia antolatu du Udalak, Kultura, Euskara, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko sailen bitartez. Elgoibarko ikastetxeetan ikasten dabilzan 8-18 urte bitarteko ikasleentzat edota, Elgoibarren erroldatuta egonik, beste nonbait irakaskuntza ertainean ikasten dabilzan adin bereko ikasleentzako lehiaketa da. Gaia librea izango da; euskaraz idatzitakoa, jatorrizkoa, aurrez saritu gabea eta argitaratu gabea izan beharko da. Sarietarako dagokionez, 50 eta 120 euro bitarteko 26 bono banatuko dituzte herriko dendetan erabiltzeko. Martxoaren 12ra arte dago izena emateko aukera. Lehiaketaren oinarriak www.elgoibar.eus atarian kontsultatu daitezke.

'Jira Bueltan: Betiko 50 kanta eta jolas' liburuxka eta DVDa banatuko ditu Elgoibarko Udalak ikastetxeetan

Adineko 60 lekuko baino gehiagoren testigantzetan oinarritutako kanta eta jolasak batu dituzte *Jira Bueltan: Betiko 50 kanta eta jolas* izeneko liburuxka-DVDan, eta herriko ikastetxeetan banatuko ditu Elgoibarko Udalak. Ahozko ondarearen transmisioa egitea da lan honen helburua. Gure aurreko belaunaldiak jasotako kanta eta jolasak berreskuratu eta biziberritzea, berriz gure artean izan daitezten, jira-jira bueltan! 2018ko abenduan argitaratu zuen lana Elgoibarko Udalak, Badihardugu elkartearen *Ahotsak ikasgelan* proiektuaren baitan, eta Eskoriatza, Aretxabaleta eta Eibarko udalekin elkarlanean. 300 haur baino gehiagok hartu zuten parte egitasmo honetan, tartean Elgoibarko Herri Eskolako eta Ikastolako haurrek. 51 kanta eta jolas jaso zituzten guztira.

'Tartalo' antzezlanaren domekan, Herriko Antzokian



Tartalo famili-antzerkia ikusteko aukera egongo da domekan, Herriko Antzokian. Joxemielek miniaturazko mundu organikoa sortuko du bere idazmahaietan, eta mundu hori bidez jasotzen, eszenografiara proiektatuko da. Joxemielek bere abenturak eta Tartaloren kondaira fantastikoa kontatuko ditu, baina ipuin tradizionalen beldurra sorrarazi dezaketen elementuak baztertuz, eta umoreaz ordezkatuz. 16:30ean hasiko da ikuskizuna. Sarrerak Kutxabank bidez erosi daitezke aurrez, edota bihar arratsaldean Herriko Antzokiko lehiatilan 18:15etik 20:45era. Sarrerak agortzen ez badira, domekan bertan ere erosteko aukera egongo da Herriko Antzokiko txarteldegian.

Emakumeen Jabetze Eskolan izena emateko epea zabalik dago

Emakumeen Jabetze Eskolan izena emateko epea zabaldu du Elgoibarko Udalak. Bi modu jarri dituzte horretarako; aurrez aurre Herriarren Arreta Zerbitzuan (goizez) edo Internet bidez www.elgoibar.eus webgunean sartuta. Otsailaren 28ra arte egongo da izena emateko aukera.



Joseba Apaolaza, Zuhaitz Gurrutxaga eta Ramon Agirre.

◆ **'Konpromisoa' antzeulanarekin izango zarete gaur, Herriko Antzokian. Zer ikusiko dugu?**

Aspaldiko bi lagun zahar batuko dira, autorea bata eta aktorea bestea, eta etxe bat saltzen saiatuko dira, baina salmenta horretan tranpa txiki bat dago. Aktoreak etxea saldu nahi du, baina autorea ez dago oso konforme saltzeko moduarekin. Ez du begi onez ikusten bere lagunak egin nahi duena, eta bien arteko adiskidetasunaren pitzadura moduko bat sortuko da hor. Hala ere, adiskidetasunaren gorazarrea egiten du obrak. Azkenean ikusiko dugu lagun zaharrei barkatzen zaizkiela beste batzuei barkatzen ez zaizkien pekatutxoak. Batzuetan etika alboratzen dela, alegia, adiskidetasunaren mesedetan. Guzti hori komedia klabearen, umoretik landuta.

◆ **Euskal antzerki munduko bi beterano eta Zuhaitz Gurrutxaga hasiberria elkartuko zarete oholtzan. Nola moldatu zarete?**

Primeran! Hirukote oso polita osatu dugu. Zuhaitz ere dagoeneko ez da hain berria mundu honetan, eta eskarmentu handia dauka. Telebistan ibiltzen da, bakarrizketak egiten ditu, eta nire ustez oholtzarako egina dagoen animalia da Zuhaitz Gurrutxaga. Karisma handia dauka eta oholtzan agertu orduko jendea barrez hasten da. Momentu komikoak oso ondo errematatzen ditu, eta umore handia dauka.

◆ **Nolako harrera izan du antzeulanak?**

Pandemiaren eraginez aforoa erdira ekarrita dago areto gehienetan, eta modu horretan, aretoak betetzen ari gara. Nik uste dut jendeak badaukala kultur ikuskizunetara joateko beharra. Herri askotan tabernak itxita dauden honetan, bestee-

▶ **RAMON AGIRRE** AKTOREA

Ramon Agirre, Joseba Apaolaza eta Zuhaitz Gurrutxaga protagonista dituen 'Konpromisoa' antzerkia taularatuko du Txalo konpainiak gaur arratsaldean Herriko Antzokian. Umorea du oinarrian obrak: Sasi-autore bat eta arrakasta handirik gabeko aktore bat gazte bati etxe bat saltzen saiatuko dira. Ramon Agirrek eman dizkigu antzeulanaren nondik norakoak.

- AINHOA ANDONEGI -

“Oholtzarako egina dagoen animalia da Zuhaitz Gurrutxaga”

kin harremantzeko modua da antzerkira joatea, distantziak mantendu behar diren arren. Orain arte harrera oso ona izaten ari gara.

◆ **Ikusleak maskararekin egoteak aktore eta ikusleen arteko harremana hozten du?**

Kasu honetan jendearen barreak behintzat entzuten ditugu, eta hori garrantzitsua da guretzat. Komediak oso ondo funtzionatzen du. Barre egitea oso gauza atsegina da, eta bizi dugun egoera honetan, are gehiago.

◆ **Arkitektura ikasi zenuen, eta aktore izaten bukatu duzu. Nola izan zen hori?**

Arkitektura ikasketak hasi nituen, baina ez nituen bukatu. Tarte horretan atzerrian ere ibili nintzen, besteak beste, Parisen eta antzerkia sartu zen tartean. Lanbide honetaz maitemindu nintzen. Azken batean arkitekturak ere badu arteaz zerbait, ez dira hain desberdinak bi alorrak.

◆ **Ibilbide luze eta oparoa egin duzu aktore lanetan. Probatu dituzu antzerkia, telebista eta zinema. Zein duzu gogokoen?**

Nik ez dut bata bestea baino nahiago. Pertsonaia eta obra politik badira, edozein mediotan aritzen naiz gustura. Niretzat politena batetik bestera ibiltzea da.

◆ **'Konpromisoa' ikustera joateko konpromisoa hartu duten elgoibartarrei zer esan nahi diezu?**

Oso ondo pasatuko dutela. Orain arteko emanaldietatik jendea oso gustura irten da eta Elgoibarren ere hala izango delakoan nago. Barre asko egingo dute, baina umoreaz gain, obrak baditu beste osagai batzuk ere, hausnartzeko aukera ematen dutenak. Oso obra konpletua da.

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientziaduna. ☎ 655 094 780

Adinekoak zainduko nituzke. Euskalduna naiz eta esperientzi handia daukat. ☎ 617 571 210

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile aritzeko prest, orduka eta baita asteburuetan ere, beharraren arabera. ☎ 632 108 280

Asteburuetan lan egiteko prest nago, orduka. Esperientzia daukat adinekoak zaintzen. Agiriak legez. ☎ 632 344 209

Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta beste edozein lanetarako prest nago. ☎ 632 116 534

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. Etxeko langile moduan ere egingo nuke lan, eta ospitalean gauak pasatzeko ere prest nago. ☎ 642 846 905

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Baita sukaldari laguntzaile lanetarako ere bai. Mendekoak zaintzeko titulua daukat. ☎ 666 197 831

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka eta baita gauaz ere. Arreta Soziosanitariorako titulua daukat. ☎ 683 580 665

Eraikuntzan peoi lanak egingo nituzke, esperientzia eta hurrengo titulua ditut: eskorga-gidari txartela, garabi-zubia erabiltzeko txartela eta plataforma jasotzaile karneta. Adinekoak zainduz, garbiketa lanetan eta banatzaile aritzeko ere prest nago. Auto propioa dut. ☎ 604 207 579

Adinekoak zaintzeko, etxeko lanak egiteko zein tabernan lan egiteko prest nago. ☎ 681 212 449

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile aritzeko prest, bai eta orduka lan egiteko ere, baita asteburuetan ere. ☎ 688 735 551

Eskaerak

Taberna batek janaria etxeetara eramateko langileak behar ditu. ☎ 680 489 416 (Erminio)

BPXport enpresak Olaizaga kiroldegiko eta Mintxeta kirolguneko harreretan lan egiteko lagun bat behar du. Administraziorik ezarritako izatea eta euskaraz jakitea ezinbestekoa. elgoibar@bpxport.es helbidera bidali behar da curriculumak.

GARAJEAK.....

Garaje itxia hartuko nuke alokairuan. Luzerako alokairua izango da. ☎ 643 372 825

Garaje itxia saltzen dut San Roke auzoan, kiroldegitik gertu. ☎ 679 851 185

BESTELAKOAK.....

Abuztuaren 8an moto batek gizonezko bat harrapatu zuen Txankakuako eta Sigmako zubien arteko errepidean. Gertatutakoa argitzeko lekuko bila gabilta. ☎ 628 115 677



I. URTEURRENA

Marceliano Diez Tejedor

2020ko otsailaren 8an hil zen, 74 urte zituela. Haren oroimenez I.urteurrenako meza izango da, domekan, otsailaren 7an, 11:30ean Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Euzko Administratzaileen Sarakide Kontzidea



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioerako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Duela hilabete batzuk eraikitako eta hainbat txaletek osatutako gure urbanizazioan, postaren banaketa zaintzako langileak egiten zuten orain arte. Urbanizazioaren barruan, familia bakarreko etxebizitzak eragin dio korrespondentzia-banaketak; izan ere, dirudienez, Correos-ek arau gisa ezartzen du komunitate horretan banaketa egiteko, kutxatila kontzentratuak jarri behar direla, zeregin jakin horretarako prestatuta. Jakin nahi nuke etxebizitzaren promotoreari eskatu ahal diogun kutxatila kontzentratuak instalatzea.

Familia bakarreko etxebizitzak edo merkataritza- edo industria-lokal independenteak diren higiezinetan, sarrerako lehen atetik gertu dagoen etxebizitzak batean egin ahal izango da entrega, beti ere bide publikotik iristeko aukera badago. Bertan nahitaez agertu beharko dira kalearen izena eta postahelbidea identifikatzeko beste datu batzuk, hala nola urbanizazioaren edo poligonoaren izena eta partzelaren zenbakia, eta nahi bada, bizikideen izen-abizenak ere bai. Kasu honetan, postontzietan kokapen berria eman nahi zaie, eta, egitura edo bloke bat osatuko dute. Nire ustez, egitura edo bloke hori eraikuntzako elementu komuna da, eraikuntzaren promotoreak ahalbidetu behar dituen elementua. Beraz, egoera berri hori gauzatzeko sortzen diren gastuak promotorearen kontura izango dira, postontziak araudira egokitu behar izan zituelako.

Ondorioa: Promotoreari eskatu ahal izango litzaiokete kutxatila kontzentratuak jartzeko, korrespondentzia behar bezala banatu ahal izateko.




AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeKo bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Mikel**, familia-koen eta bereziki, Lukenen partez!



Etzeko txikiena eta handiena. Eskerrik asko gure alderik onena atera eta maitasun mugagabea zer den erakustegatik. Zorionak, **Liher!**




Zorionak, **txapeldun**, otsailaren 2an zure urtebetetze eguna izan zelako.



Zorionak, **Jakes!** Gaur 6 urte bete dituzu! Ondo ospatu eta muxu asko familiako guztien partez.



Zorionak, **Leire!** Otsailaren 7xan, 9 urte! Segi horrela urte askuan.



Zorionak, **Jare**, neska handi! 9 urte beteko dituzu hurrengo astelehenean. Patxo handi bat etzeko guztien partez, batez ere neba Aratz eta Ibai eta Lier lehengusuen partez.



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

ZERBITZU BERRIA!

Mota guztietako arropa konpontzen hasi gara
Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira.
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,
edozein ehun konpondu ahal izateko:

PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK, LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com



**Patxi
Zabala
Gandiaga**


2021eko otsailaren 1ean hil zen, 66 urte zituela.



**Ignacio
Salegi
Urain**

2021eko otsailaren 2an hil zen, 78 urte zituela.

ZUBI - ONDO



**Betirako
izango zaituztegu
gogoan.**

EXPRESS ESKAINTZAK!

LT-50VU3000 JVC TELEBISTA



359 €

- A+ ● UHD 4K ● SMART TC
- WiFi ● HDR 10 ● 50"
- APPS - NETFLIX, PRIME VIDEO, YOUTUBE
- Laguntzaile birtuala : ALEXA

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

5 BARIKUA

16:30 Odol ateratzea, Jubilatuen Biltokian. 45 odol emale behar dituzte. Izena emateko: 623 328 408.

19:00 Antzerkia: 'Konpromisoa'. Txalo Produzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian. Ramon Agirre, Joseba Apaolaza eta Zuhaitz Gurrutxaga elgoibartarra izango dira protagonistak.

7 DOMEKA

16:30 Familia antzerkia: 'Tartalo'. Herriko Antzokian.

8 ASTELEHENA

Erakusketa: '011 Erakusleioak'. Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna-ren harira, emakume zientzialariz jantziko dituzte herriko dendetako erakusleioak. Hilaren 21era arte.

12 BARIKUA

18:30 Erakusketa: 'Yulen, 100 urte'. Udalak eta Ongarri argazkilaritza taldeak antolatuta, Julen Zabaletari eskainitako erakusketa. Margolari elgoibartarrak 100 urte beteko ditu eta haren bizitzari buruzko erakusketa izango da. Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo da ikusgai, hilaren 27ra arte.

Zinea (Herriko Antzokian)



'La última gran estafa'

6 zapatua: 19:00

7 domeka: 19:00

8 astelehena: 19:00

'Sin señas particulares'

(Ongarri zinekluba)

10 eguaztena: 19:00

Urtarrilean hildakoak

<ul style="list-style-type: none"> • Antonio Aizpuri Zubizarreta 80 urte, urtarrilak 1 • Maria Pilar Barruetabeña Barruetabeña 79 urte, urtarrilak 4 • Angel Fernandez de Jauregi Olañeta 88 urte, urtarrilak 7 • Pepita Astigarraga Irondo 91 urte, urtarrilak 7 	<ul style="list-style-type: none"> • Valentin Egaña Lizundia 85 urte, urtarrilak 7 • Sabin Osoro Unzueta 98 urte, urtarrilak 8 • Manolo Ibarluzea Arano 77 urte, urtarrilak 9 • Josefa Zialzeta Arregi 92 urte, urtarrilak 13 • Migel Artola Bergaretxe 86 urte, urtarrilak 24 	<ul style="list-style-type: none"> • Iñaki Korta Juaristi 46 urte, urtarrilak 26 • Marcelina Arabiourrutia Larruskain 94 urte, urtarrilak 29 • Maria Ines Arriola Zubiaurre 89 urte, urtarrilak 30 • Maria Teresa Etxaniz Elorza 92 urte, urtarrilak 30
---	--	---

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00			Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
5 BARIKUA	6 ZAPATUA	7 DOMEKA	8 ASTELEHENA	9 MARTITZENA	10 EGUAZTENA	11 EGUENA	12 BARIKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagaritza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912




I. URTEURRENA

Justino Badiola Arakistain

2020ko otsailaren 4an hil zen, 77 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, otsailaren 7an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Mundu honetatik joan arren,
beti gogoan izango zaitugu,
zure oroitzapen onak
gurekin baititugu.***

Nahia, Beñat, Maite eta Ibai




VII. URTEURRENA

Idoia Laka Lizaso

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

***Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***

Etxekoak



VII. URTEURRENA

Idoia Laka Lizaso

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

***Behar dugunetan ezin gara babestu zure besoetan,
baina badakigu hor zaudela gure bihotzetan.
Zure indarra eta alaitasuna eredu.***

Maite zaitugu.

Azkoitiko eta Elgoibarko lagunak





Hogeita zazpi urtetan bitan
santa eskea da eten;
behin elurtea izan zen eta
COVID-19 aurten.



Zuen artera hurbiltzen gara
Santa Ageda bezperan.
Aurten, ordea, ez gara joan
tokatzen zitzaigun eran.



Aittitta-amamen emozioa
umeen barre-jolasak.
Hurrengorako gorde, mesedez,
kafea eta sanblasak.



Birusak laga gaitu gu aurten
zuen etxetik aparte;
bizipozari eutsi gogor (e)ta
datorren urtera arte!



Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea

